

GIL 31 Galarretako tuparriak, Goi Kretazeokoak



Osmako tuparriek Arabako Lautada osoa eratzen dute.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 54' 26,68 '' N
Long.: 2° 21' 40,77 '' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 552.135,63 m
Y: 4.750.730,83 m



Nola iritsi

Galarreta herrira joan behar da, N-1 errepidetik A-3102 errepidea hartuta. Herrira iritsita, N-rantz abiatzen den pista hartu behar da, ibilgailuei igarotzea debekatzen dien hesi batera iritsi arte.



Hautatutako GILa Lautadako ipar-ertzean dago, Aizkorri-Aratz mendilerroetako Behe Kretazeoko kareharrien erliebeen azpian.

GILaren deskribapen laburra

Galarreta herriaren iparraldean, Arabako Lautadak erliebe biribildu leunak ditu, eta han ikus daitezke Gasteizko arro osoa eratzen duten Goi Kretazeoko tuparriak.

Osmako tuparriak deritzon unitatea tuparri, buztin eta kareharri buztintsuak txandaka dituen segida batez osatuta dago. Mendebalderantz, kalkarenita finetara eta estratifikazio gurutzatuko hareharri bioklastikoetara aldatzen da litologia. Eduki paleontologikoan, ekinodermatuen fosilen ugaritasuna nabarmen ageri da (Micraster).

Unitatean zehar, iragaite bat gertatzen da plataforma ireki baten ingurune sedimentarioan: alde distaletatik proximaletara pasatzen da, eta joera erregresibo bat markatzen da.

Hautatutako GILari dagokion azaleratzearen estratifikazioak N120E norabidea eta 50 gradu inguruko okerdura du, eta N-S norabideko faila txikiak ditu.

Behatzeko punturik onena

In situ.



Azaleratzearen ikuspegi orokorra.



Goi Kretazeoko tuparri eta kareharri buztintsuen itxura Galarretako azaleratzean.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 21, GIL 52, GIL 68.
- **Gaiari dagokionez:** Bat ere ez.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					